

Lehenengo eta behin, zorionak irabazleei eta animoak orain sarituak izan ez zaretenoi.

Kalitate handiko lanak izan ditugu esku artean eta goraipatzeko da urtero jasotako lan kopurua. Ederra benetan.

Esan behar dut lan hauetan gaur egungo gazteek dituzten kezka literatur lanetan ezin hobeto islatuak agertu direla.

Zorionak emateaz gain, **eskerrak** ere eman nahi dizkizuegu, zergatik?

-Aulki baten gainera mugitu gabe **iraganera** zein **etorkizunera** eramane gaituzuelako;

-Benetako **printzesa** nor den gaur egungo gizartean plazaratu duzuelako;

-Haurtzaroan eta nerabezaroan maite maite, ez bakarrik bakoitzak bakoitzak bere buruaren begirada gozoak aurkeztu dizkiguzuelako;

-Nobela beltzean Michelen misterioa eta intriga, Mesopotamian mamua eta zein zaila den seme izaten erakutsi diguzuelako.

Zuei esker, Norbait joan da olerkia, Bizirik gabe bizi den pertsona eta gizon herrenaren abestia eta musika sentitu ditugu, alai bezain eder, beste behin ere **LITERATURA LILURATURA** bihurtu duzuelako.

Honengatik guztiagatik, eskerrik asko.

Bilbon, 2012ko maiatzeko 22an
Antton Irusta